

IV. Eranskina

Erasan akustikoaren ebaluaketa

AURKIBIDEA:

1. Erreferentzi arauemaile orokorrak.
2. Plan Orokorrak eta "Donostia Udalerriko giro-soinua hobetzeko ekintza planak" (12/07/2013) zarataren kontrako babes zehaztapenak.
 - 2.1. Plan Orokorraren aurreikuspenak.
 - 2.2. "Donostia Udalerriko giro-soinua hobetzeko ekintza plana".
3. Erasan akustikoaren ebaluaketa.

I. ERREFERENTZI ARAUEMAILE OROKORRAK

2012ko urriaren 16n "213/2012" Dekretua, "hots-kutsadurari buruzkoa", behin betiko onartu zen. Estatu eta europar mailako hots-kutsaduraren eta bere efektuen inguruko arauak garatzen ditu. Garapen berriko hiri antolakuntzak aurreikuspen hauek bete beharko ditu, eta dagokion esparruan "erasan akustikoaren ebaluaketa" egin beharko du (36. eta 37. artikulua).

Aipatutako legeak garatuz, Donostiako Plan Orokorra eremu akustikoko planoak dakar ("III.4. Baldintzatzaile gainjarriak- eremu akustikoak"), erabileraren arabera udal lurraldea zonifikatzen duena, legeak ezartzen dituen zarata limite jasangarriak zehazteko. Udalak (2013/07/12ko Udal Batzarrean), eta legeak betetzearren, "Donostia Udalerriko giro-soinua hobetzeko ekintza plana" onartu zuen.

Deskribatu den aurreikusitako arau multzoa erabiliko da egin beharreko Ebaluaketa hau burutzeko.

2. PLAN OROKORRAK ETA "DONOSTIA UDALERRIKO GIRO-SOINUA HOBETZEKO EKINTZA PLANA"K (12/07/2013) ZARATAREN KONTRAKO BABES ZEHAZTAPENAK

2.1. PLAN OROKORRAREN AURREIKUSPENAK

Azaldu den bezala, Plan Orokorren "III.4. Baldintzatzaile gainjarriak- eremu akustikoak" planoan udal lurraldearen zonifikazio akustikoa definitzen da, "AU.01.2 Rodil" azpiesparrua "bizitegi erabilerako eremu akustiko" gisa kalifikatuz

Eremu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurrealde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

Honen arabera, eta "213/2012 Dekretuaren "31". artikulua ("I" Eranskina) ezartzen duenaren arabera, gaur egun kanpoko espazioan bete beharreko kalitate akustikoaren helburua honako hau da:

"A" TAULA. Dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburua aplikagarriak:

Hala eta guztiz ere, aipaturiko artikulua "2." atalak dionez, proiektatutako garapen berriak taulak ezartzen duena baino 5 db(A) gehiagoko eskakizuna bete beharko du.

Horretaz gain, eraikin barruan zaraten inmisio-limiteak "213/2012" Dekretuko "I" Eranskinaren "B" Taulak ezartzen duena bete beharko du.

Eraikinaren erabilera (2)	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalea	Egonguneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

2.2. "DONOSTIA UDALERRIKO GIRO-SOINUA HOBETZEKO EKINTZA PLANA"

Ekintza Planak, "213/2012 Dekretuak (10. artikulua) esaten duena betez, udalerrriaren "zarataren mapa" dakar, hiri gune zentraletan (modu orokorrean, kaleetan eta espazio publikoetan Dekretuak, hiri trafikoarengatik, betetzen ez diren kalitate akustikoko baldintzak) "babes akustiko bereziko guneak" zehazten ditu. Horretarako, "zonako akzio planak" garapena eta onarpena aurreikusten dira (gaur egun egin gabe daudenak) eta jarduketa estrategia orokorrak zehazten dira, dauden erasan akustikoak murrizteko (horietako batzuk ezartzen ari dira).

"AU.01.2 Rodil" azpiesparruan egokitu behar diren Akzio Planaren zehaztapenak, Planak dakartzan bi planoetan datoz (hurrengo orrietan hauen xehetasunak azaltzen dira, "AU.01.2 Rodil" azpiesparrua bertan agertzen delarik) -planoak erdaraz egonik, hauen tituluak ere erdaraz azaltzen dira:-

1. Delimitación de las "zonas de protección acústica especial"

2. AfECCIÓN acústica y "zonas tranquilas".

Lehendabiziko planoak "AU.01.2" azpiesparrua "Babes akustiko berezia behar duten eremua - Ipar-ekialde"-an dagoela adierazten du. "Zonako ekintza plana" egin behar da, legeak ezartzen dituen baldintzak bete ahal izateko neurriak xehetasunean zehazteko.

Bigarren planoak, egindako "zarata mapen" emaitzak azaltzen ditu, eta, erasan isofonoko kurbaren arabera, dauden gatazka mailak identifikatzen ditu, db(A)-n neurtuta (10 maila ezberdintzen dira, <1 db(A)-tik>10 db(A) arte, gaueko ordutan jasagarria den 50 db(A)-ko erreferentzia harturik)

"AU.01.2" azpiesparruari dagokionez, zarata foku nagusia Nafarroa Etorbidea da, 10 db(A)k gainditzen dituzten gatazka mailekin. Hauek jaitsi egiten dira, Rodil Kalean dagoen Manteo polikiroldegian desagertzen direlarik. Beraz, aipatutako gatazka mailak "AU.01.2" azpiesparruan eraginik ez du.

Zarata fokurik ez egonik, edo azpiesparruan afekzioirik ez edukirik, ezartzen diren kalitate akustikoko helburuak betetzen dira, eta "gune lasai" gisa (213/2012 Dekretua, 3. artikulua) identifikatzen da.

PLAN GENERAL DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN . Plano "III.4 Condicionantes superpuestos. Áreas acústicas"



PLAN DE ACCIÓN DE MEJORA DEL AMBIENTE SONORO (2013/2018) DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN . Plano "1. Delimitación de zonas de protección acústica especial"



PLAN DE ACCIÓN DE MEJORA DEL AMBIENTE SONORO (2013/2018) DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN . Plano " I. Delimitación de zonas de protección acústica especial"



3. ERASAN AKUSTIKOAREN EBALUAKETA

"Babes akustiko berezia behar duten eremua - Ipar-ekialde"ko "ekintza plana" egin gabe egonik, "Donostia Udalerriko giro-soinua hobetzeko ekintza plana (2013 / 2018)"k erreferentzi nahiko ditu "AU.01.2 Rodil" azpiesparruko "Erasan akustikoaren ebaluaketa" egiteko.

Zarata-iturrien analisia

Ekintza planak zarata-iturriak ez ezik, "AU.1.2" azpiesparruan eraginik ez duten gatazka akustikoko mailak ere identifikatzen ditu; maila hauek, proiektatutako hiri antolakuntza berriarekin, ez dira aldatu behar.

Zentzuzkoa da pentsatzea azpiesparruaren ertzetik igarotzen den Rodil Pasealekuak Nafarroa Etorbideak baino zarata maila txikiagoak sortuko dituela. Nahiz eta Rodil Pasealekuko erabilera areagotzea posible izan, noizbehinka izango da, abiadura motelean igaroko dira bertatik, sortutako zarata mailak guneko errepide eta kaleen maila antzekoak izanik.

Hartutako neurrien definizioa:

"AU.01.2 Rodil" azpiesparru guztian, zarata maila 50 db(A)tik behera gelditzen da, eta, horrezkero, "gune lasai" gisa esleitzen da.

Fatxaden tratamendu konstruktiboaren bidez eraikinaren barrualdean inmisio-akustiko maila maximoak "213/2012 Dekretu"ko "I. Eranskina"ren "B Taula"k ezartzen dituen mailak betetzen direla ahalbidetuko da.

Donostian, 2019ko maiatza

Sinatuta: David Véliz Ramas



Sinatuta: Gorane Mendizabal Trujillo



g+d arkitektura